

Edurne Herránen “Geroaldi perfektua” erakusketa, Montehermoson ikusgai apirilaren 9ra arte

Proiektu artistikoen 2016ko deialdiaren barruan denboraldi honetarako hautatutako hiru lanen arteko bigarrena da

Proiektu artistikoen 2016ko deialdiaren barruan denboraldi honetarako hautatutako hiru lanen arteko bigarrena, Edurne Herránen “Geroaldi perfektua” erakusketa, otsailaren 10etik apirilaren 9ra arte egongo da ikusgai, Montehermoson.

Kultura, Hezkuntza eta Kirol zinegotzi Estíbaliz Cantok eta egileak berak aurkeztu dute gaur prentsaren aurrean. Cantok esan duenez, proiektu artistikoen deialdiari *“maitasun berezia diogu, tokiko artisten lanak ezagutarazteko balio baitu, proiektuen produkzioa eta zabalkundea bultzatuz”*.

Bere proiektuan, Edurne Herránek identitatearen gaiari heldu dio, etengabe lantzen ari den prozesutzat hartuta, aurreko “ni-en” batuketa baita, hartzen dugun erabaki bakoitzak edo egiten dugun gauza bakoitzak etengabe eraldatzen duena. Azken bi urteetan, artistak bere identitatearen beste identitate paralelo batzuk eraiki ditu, eta benetan jarri ditu praktikan, bere estetika eta izaera eraldatuz gizartearen aurrean.

“Geroaldi perfektua” erakusketarekin batera hiru jarduera osagarri antolatu dira. Lehena, bisita gidatua egilearekin, otsailaren 11n, 19etan. Bigarrena, *“Mi otro yo: Dr. Lan eta Mr. Jai”* lantegia, bisita gidatua eta erakusketa aretoan otsailaren 18an egitekoa den lantegia barne hartzen dituena. Hirugarrena, *“Irudizko bikiak”* zinema-zikloa: egileak aukeratutako lau film emango dira, jatorrizko bertsioan gaztelaniazko azpitoluekin, otsailaren 28tik martxoaren 28ra bitarteko astearteetan (martxoaren 14an izan ezik). Sarrera libre izango da, lekuak bete arte.

2017ko deialdia

Azkenik, zinegotziak proiektu artistikoen 2017ko deialdiaren berritasun bat aurreratu nahi izan du: *“aukeratutako lanei laugarren bat gehituko zaie, berariaz ikus-entzunezko proiektu batekin zerikusia duena. Aukera hori aurrekontua izatearekin lotuta dago, jakina, eta zirriborroan apustu hori hartu dugu kontuan, deialdia handitzeko ez ezik, Montehermoson ikus-entzunezkoen alde egiteko ere”*.

La exposición “Futuro Perfecto” de Edurne Herrán estará en Montehermoso hasta el próximo 9 de abril

La obra, es la segunda de los tres proyectos seleccionados en la convocatoria de proyectos artísticos 2016

El segundo de los tres proyectos seleccionados en la convocatoria de proyectos artísticos 2016, “*Futuro Perfecto*” de Edurne Herrán, estará expuesto en Montehermoso desde mañana 10 de febrero hasta el próximo 9 de abril.

Lo presentaban hoy en rueda de prensa la concejala de Cultura, Educación y Deporte, Estíbaliz Canto, y la propia autora. Canto, aseguraba que la convocatoria de proyectos artísticos “*es uno de los proyectos que más cariño tenemos, porque proporciona la capacidad de hacer visible el trabajo de las y los artistas del contexto local, mediante el apoyo en la producción y difusión de sus proyectos*”.

En este en concreto, Edurne Herrán aborda el tema de la identidad, entendida como un proceso de elaboración constante, la suma de “yo-es” anteriores, que con cada decisión que tomamos o acto que realizamos estamos continuamente transformando. Durante los dos últimos años, la artista ha confeccionado varias identidades paralelas a la suya propia y las pone en práctica de manera real transformando su estética y su carácter de cara a la sociedad.

La exposición “*Futuro Perfecto*” tiene además tres actividades complementarias. En primer lugar la visita guiada el 11 de febrero a las 19 horas con la propia autora. En segundo lugar el taller “*Mi otro yo: Dr. Lan eta Mr. Jai*” que incluye la visita guiada y el siguiente sábado 18 de febrero un taller impartido en la sala expositiva. Y en tercer lugar el ciclo de cines “*dobles imaginarios*”, con la proyección en versión original con subtítulos en castellano, de cuatro películas seleccionadas por la artista, todos los martes del 28 de febrero al 28 de marzo (salvo el 14), con entrada libre hasta completar aforo.

Convocatoria 2017

Por último, la concejala ha querido adelantar una novedad de la convocatoria de proyectos artísticos 2017 “*a las tres seleccionadas, se le unirá una cuarta específica sobre un proyecto audiovisual. Obviamente, esta posibilidad está vinculada a la existencia de un presupuesto, en cuyo borrador contemplamos esta apuesta no sólo por incrementar la convocatoria, sino por apostar por lo audiovisual en Montehermoso*”.